










EIDE DESIGN VISIONS



Nolako izango litzateke diseinurik gabeko mundua?

Nortzuk gara

EIDE, gara, diseinuaren elkarte, irabazi-asmorik gabeko erakundea, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gizar-, kultura- eta ekonomia-bizitzan diseinua eta sormen-kultura sustatzeko eta bultzatzeko funtsezko helburuarekin sortua.

Ongi etorri gure EIDE DESIGN VISIONS plataformara, bizi nahi dugun munduaren diseinuan parte hartu gura duen oro entzuteko, berarekin hitz egiteko eta partekatzeko gune irekira.

Ba al zatoz gurekin?

Hau bilatzen dugu

- Gure ekosistemako eragileekin eta eragileen artean hitz egiteko eta trukatzeko espazio bat sortzea.
- Diseinuaren ikuspegi desberdinak bateratzea, helburuak le-
rrokatzea eta erronka komunak planteatzea.
- Diseinuaren balioa hainbat ikuspegitatik aztertzea.
- Elkarrekin diseinu poliedrikoaren, multiplearen eta askotarikoaren definizio kolektiboa eraikitzea.

Gure lehenengo tresna digitalean, diseinuaren begiradaren bi-
dez orainari eta etorkizunari buruz hausnartzeko ibilbide batean,
parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

01

Eraldaketa



Eraldaketa



Informatu

Testuinguru konplexuan eta aldakorrean ibiltzeko; etengabe eraldatzen egoteko; malguak izateko eta ziurgabetasuna beren kulturen txertatzeko, gure erakundeek gaizki definitutako arazoak maneiatzeko orduan adituak ziurgabetasunean*, adituak behar dituzte, diseinatzaileak behar dituzte...

***Nacho Lavernia, Valentziako diseinatzailea, Lavernia & Cienfuegos enbaxkide sortzailea.**



Inspiratu

"Bizirik dirauten espezieak ez dira indartsuenak, ez azkarrenak, ez argienak, aldaketara ondoen egokitzen direnak baizik".

Charles Robert Darwinek *Espezieen jatorrian* azaldutako ideia nagusiaren interpretazio komuna.

Eta zure erakundean aldaketa gidatu beharko bazenu?

Ordenatu garrantziaren arabera diseinuak eraldaketari egin diezaiokeen ekarpena:

- **Kultura sortzaileagoa bultzatzea**

Kultura sortzaileagoa eta esploratzaileagoa bultzatzea, ideia berriak probatzeko eta jarrera proaktibo eta esperimentala sustatzeko 'leku segurua' eskainiz.

- **Antolaketaren kultura birpentsatzea**

Erakundearen antolaketa-eredua edo kultura zalantzan jartzea, jarrera sortzaile eta eraikitzaile batetik.

- **Esparru partekatu bat sortzea**

Pertsonetan zentratuta egongo diren, ulergarriak eta koherenteak izango diren eta erakunde osoak partekatuko dituen lan-esparrua eta prozesua sortzea.

- **Kultura parte-hartzailea bideratzea**

Eragileak eta erabiltzaileak tartean sartzeko, parte hartzeko eta inplikatzeko kultura sortzen laguntzea.

- **Teknologia humanizatzea**

Erronka teknologiko bat ezartzeko orduan erabiltzaileen beharretan arreta jartzea.

- **Enpatia sustatzea**





Enpatia-harremanak ezartzea taldeen artean eta bezeroekin eta erabiltzaileekin.

- **Erakundean bitartekari izatea**

Erakundeko hainbat arlotako pertsonak inplikatzeko eta bitartekari gisa jardutea, arreta erabiltzaileen funtsezko beharretan jarrita, erreferentzia komun gisa.

02

Negozioa



Negozioa



Informatu

Korrelazio argia dago diseinuaren bikaintasunaren eta negozioaren bikaintasunaren artean: Mckinsey Design Index erakundearen arabera, diseinua estrategia korporatiboaren erdigunean jartzen duten enpresek diru-sarreraren % 10eko hazkundea izan dute, eta % 21eko itzulera akziodunentzat (industriaren erreferentzia-balioak % 3tik % 6ra eta % 12tik % 16ra).

5 urteko jarduera-aldiari dagokionez aztertutako 300 enpresa baino gehiagoren (teknologia medikoa, kontsumo-ondasunak eta txikizkako banka) goi-kuartilaren emaitzak.

DMI: Design Value Index delakoaren arabera, hamar urtean, diseinuak bultzatutako enpresetan egindako inbertsio baten itzulerak % 200etik gora gainditzen du S&P500eko beste enpresa batzuetako inbertsio beraren itzulera.

Aztertutako 15 enpresen hautaketaren emaitzak, 10 urteko jarduera-aldiari dagokionez, S&P 500ko enpresa guztiak kontuan izanda.



Inspiratu

“Good design is good business”.

Thomas J. Watson Jr., IBMko presidente ohia eta CEOa.


Zein erritmotan handitzen dira diseinuan ondoen moldatzen diren enpresetako akziodunen diru-sarrerak eta mozkinak?

Hautatu aukera bat:

- **Erritmo berean handitzen dira**
- **1a % 50 azkarrago handitzen dira**
- **1a bi aldiz azkarrago handitzen dira**

03

Sormena



Sormena



Informatu

“(…) pentsatzeko modua aldatzen ari da. Enpresa liderrek arrakastaren beste funtsezko faktore baten garrantzia aitortzen dute, enpresa-inguruneko alderdi guztietan sormena txertatu beharra, estrategiatik eta kulturatik berrikuntzara eta bezeroarekiko konpromisora”.

David Wadhvani, Adobeko hedabide digitalen presidenteorde seniorra.

Pentsamendu sortzailea eta pentsamendu kritikoa pentsatzeko modu osagarriak dira. Enpatia, sormena eta arrazionaltasuna bezalako diseinu-tresnak erabiltzean, arazoak berriro formulatzeko gai gara, soluzio berritzaileak lortzeko bide berriak sor daitezten.



Inspiratu

Sormenean heztea aldaketarako heztea da, eta originaltasunean, malgutasunean, etorkizuneko ikuspegian, ekimenean, konfiantzan eta arriskuen zaletasunean aberatsak diren eta eguneroko bizitzan agertzen zaizkien oztopoei eta arazoei aurre egiteko prest dauden pertsonak prestatzea da, berrikuntzarako tresnak eskaintzeaz gai.

Honetan oinarritua: *Pensar y crear: educar para el cambio*, Betancourt, M. J. et al, 1997. Kuba: Akademia.

Azkenean ikasiko al dugu sormenean hezten?

Ordenatu garrantziaren arabera, zer esan nahi duen zuretzat sormenean hezteak:

- **Akatsak egiteko beldurra gainditzea**
- **Oraina etorkizuneko proiektu batekin gainditzea**
- **Potentziala den horretan konfiantza izaten ikastea, eta ez soilik errealitatean**
- **Norberarengan eta bere sinesmenengan konfiantza garatzea**
- **Pentsamendu sortzailea eta malgua garatzeko lan-kultura sustatzea**
- **Borondatearen alde egitea, oztopoak gainditzeko eta ekinean jarraitzeko**
- **Anbiguotasunean eta ziurgabetasunean mugitzen ikastea**

04

Sinpletasuna



Sinpletasuna



Informatu

"Konplexutasuna, berez, ez da ez ona ez txarra: arazoa nahas-
menduan dago".

Living with Complexity, Donald A. Norman, 2010. The MIT Press.

Eskaintzen bonbardaketaren eta infoxikazio* orokorraren aurrean, erakunde jasangarrienak sistema konplexuak kudeatzeko gai di-
renak izango dira, proposamen argiak, koherenteak, sinesgarriak eta beraien hartzaille diren pertsonak erraz barneratu ditzakete-
nak eskaintzeko.

*Alfons Cornella, Infonomiaren sortzailea eta presidentea.



Inspiratu

"Sinplifikatzeko gaitasunak beharrezkoa ez dena ezabatzea
dakar, beharrezkoa denak hitz egin dezan".

Hans Hofmann, Alemanian jaiotako margolari amerikarra
(1880-1966).


Sinpletasuna balitz paradigma berria, nolakoa izan beharko luke munduak?

Antolatu kontzeptu hauek zure irizpidearen arabera:

- **Askotarikoa**
- **Gardena**
- **Erosoa**
- **Ezagutzeko modukoa**
- **Irisgarria**
- **Sinesgarria**
- **Koherentea**
- **Intuitiboa**

05

Emozioa



Emozioa



Informatu

Azterlan batzuen arabera, erosketan eragina duten faktoreen % 80 emozionalak dira, eta % 20 soilik dira arrazionalak, baita B2B inguruneetan ere. Geure burua oso arrazional gisa irudikatzea gustuko dugun arren, neurozientziak erakutsi du emozioak azken erabakia baldintzatzen duela, nahiz eta geroago geure burua argudio objektiboetan oinarrituta justifikatu, gure izate arrazionalagoarekin bat egiteko.

Honetan oinarritua: *Branding emocional: Las emociones dan vida a tu marca*, Carlos Puig Falcó, Branwardeko CEOa.

Produktu edo zerbitzu baten diseinuari buruzko erabakietan, (...) emozioak, sinesmenak, lehentasunak, eredu mentalak, erantzun fisiko eta psikologikoak, pertzepzioak, portaerak (...) hartu behar dira kontuan.

Honetan oinarritua: *La importancia estratégica del diseño centrado en las personas*, Judith Membrives, 2019. Universitat Oberta de Catalunya.



Inspiratu

“Konbentzimendu arrazionalak berez ez du ekintzarik sortzen. Emozioen bultzada da jauzia egitera bultzatzen duena”.

Joan Costa, espainiar komunikologo, diseinatzaile eta ikertzailea.


Pentsatu al duzu inoiz emozioek nola definitzen dituzten gure esperientziak?

Baloratu 1etik 5era, 1 oso arrazionala eta 5 oso emozionala izanik:

- **Aseguru mediko bat kontratatzea**
- **Zapata batzuk erostea**
- **Liburu bat erostea**
- **Aplikazio bat deskargatzea**
- **Udako apartamentu bat alokatzea**
- **Autoa erostea**
- **Ordenagailua erostea**
- **Jatetxe bat aukeratzea**

06

Baterako sorkuntza



Baterako sorkuntza



Informatu

Zer da baterako sorkuntza?

"Baterako sorkuntza osoa, balioa sortzeko prozesu gardena da, etengabeko lankidetzaren produktiboan, eta alde garrantzitsu guztiek lagunduta, erabiltzaileekin, funtsezko eginkizuna betez".

***The 7 principles of complete co-creation*, Stefanie Jansen & Maarten Pieters, 2017. Amsterdam: BIS Publishers.**

Zer da baterako diseinua?

"Baterako diseinua, inplikaturako alderdi guztiak era aktiboan inplikatzeko eta arazo bat formulatzen eta konpontzen laguntzeko aukera ematen saiatzen den diseinatze modua da".

www.cocreate.training



Inspiratu

"Ez dago ihesbiderik; gaur egungo garaiek elkarrekintza, lankidetzaren eta gardentasuna eskatzen dituzte".

www.thecocreators.com

Zer ekarpen egiten dizu edo egingo lizuke baterako sormenak erabiltzaileekin, kontsumitzaileekin, bezeroekin, preskriptoreekin, banatzaileekin, hornitzaileekin, laguntzaileekin eta langileekin, profesional adituekin...?

Baterako sorkuntzak dakartzan onuren artean, zeintzuk dira zuretzat garrantzitsuenak?

Hautatu 3 eta 5 aukera artean:

- **Ikuspegi komuna**
- **Helburu eta balio partekatuenak**
- **Ikuspegi aberasgarriagoak**
- **Pertsona motibatuak eta proaktiboak**
- **Hausnarketarako eta elkarrizketarako espazioak**
- **Aniztasuna eta ahots pluralak**
- **Soluzio sinesgarriak**
- **Erabiltzaileen gogobetetasuna**
- **Sormenerako gaitasuna bultzatzea**
- **Ideen eta soluzioen ebaluazio azkarra**

07

Jasangarri- tasuna



Jasangarritasuna



Informatu

“Gure hautapenek eragin zuzena dute etorkizunean, erantzukizun handia da”.

Kathy Krumpe, Future Stateko eragiketa-zuzendaria.

“Jasangarritasunak oraingo belaunaldiaren beharrak asetzen jartzen du fokua, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko duten gaitasuna arriskuan jarri gabe”.

Gure etorkizun komuna, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordea, NBE 1987.

“Garapen jasangarriak ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-sistemen arteko mendekotasuna aitortzen du, eta berdintasuna eta justizia sustatzen ditu pertsonen ahalduntzearen eta herritartasun globalaren espirituaren bidez”.

www.sustainable-environment.org.uk



Inspiratu

“Benetako aurkikuntza-bidaia ez da paisaia berriak bilatzea, begi berriak izatea baizik”.

Marcel Proust, frantziar eleberrigile, saiakeragile eta kritikaria (1871-1922).

Zer mundu nahi duzu zure seme-alabentzat eta zure seme-alaben seme-alabentzat...? Zertan lagun zenezake herritar gisa edo zure erakundearen duzun rolaengatik?


Nola imajinatzen duzu orainaldi ez-jasangarri baten etorkizuna?

Hautatu aukera bat:

- **Gutxi gorabehera orain bezala**
- **Bizirauteko erronka larriei aurre egin behar diena**
- **Aurrerapenari esker, hobera bakarrik egin dezakegu**

08

Estetika



Estetika



Informatu

“Sokratesen hitzetan, bi gauza eder daude: berez ederrak diren gauzak, eta gauza horiek erabiltzen dituztenentzat bakarrik ederrak diren gauzak. Gauza ezberdinek helburu ezberdinak dituzte, eta, beraz, edertasun ezberdina dute”.

***Sei ideien historia*, Wladyslaw Tatarkiewicz, 1987. Madril: Tecnos.**

“(…) gaur egungo diseinuaren jardunbidean, pertzepzioa eta plazer sentikorra funtzioetik edo erabilgarritasunetik banaezinak dira. Jada ez da edertasunaren eta erabilgarritasunaren arteko aurkakotasun antagonikoaz hitz egiten, ikusmolde horiek elkarrekin erlazionatzen dira estetikak funtzio bat betetzen duen eta funtzioak estetikan eragiten duen azken produktu baterako”.

***De lo bello de las cosas*, Ana Calvera, 2007. Bartzelona: Gustavo Gili.**



Inspiratu

“Ezin zaio ezer gehitu edo kendu objektu eder bati osotasuna hondatu gabe”.

E.R. de Zurko, *Art Bulletin* vol. 39, 1957. *Sei ideien historia*, Wladyslaw Tatarkiewicz.

Pentsatu al duzu zerk egiten dituen eder gure inguruko objektuak? Zer sentiarazten dizute? Zer ematen dizute?

Ordenatu garrantzi-mailaren arabera:

- **Dibertitzen naute**
- **Erraztasunak ematen dizkidate**
- **Aberastu egiten naute**
- **Hunkitzen naute**
- **Oroitzapenak ekartzen dizkidate**
- **Konfiantza ematen didate**
- **Harritu egiten naute**
- **Samurtzen nau**
- **Motibatu egiten naute**

09

Digitali- zazioa



Digitali- zazioa



Informatu

“Berrikuntza pertsonekin hasten da”.

“Teknologia azkar mugitzen da, gizakiaren beharrak astiro aldatzen dira”.

Tim Brown, IDEOko CEOa eta presidentea.

Diseinuak etorkizun digitala besarkatzeko sormen-aukerak marrazten ditu, egiteko modu berriak inspiratzen ditu, pertsonekin eta gizartearekin konektatzeko modu berriak, eta erakundeek konfiantzaz aurrera egitea errazten du, arlo fisikoaren eta digitalaren arteko bereizketa desegin ahala.



Inspiratu

“Digitalizazioa eta iraunkortasuna merkatuak gaur egungo enpresa-panoraman duen eragin indartsuenetakoa bi dira (...) Ekonomia globalean eraldaketarako ekaitz perfektua sortzen ari dira”.

***The Convergence of Digitalization and Sustainability*, David Kiron & Gregory Unruh. MITSloan Management Review, 2018ko urtarrila.**


Arlo fisikoaren eta digitalaren arteko mugak desegiten ari diren mundu honetan, zure ustez zer eginkizun hartu behar du teknologiak?

Erantzun baietz edo ezetz galdera hauei:

- **Teknologia digitalak beren balioa handitzen, eredu operatiboa eraldatzen eta jasangarriagoak eta eraginkorragoak izaten lagundu al diezaieke erakundeei?**
- **Gure egunerokotasunean egiten dugun guztiaren parte izan behar al du, ikasteko, lan egiteko, jolasteko, harremanak izateko, jateko, erosteko, erlaxatzeko... moduaren parte, hain zuzen ere?**
- **Lagungarria izan al daiteke esperientzia esanguratsuak sortzeko eta pertsonen inplikazioa, motibazioa eta ongizatea bultzatzeko?**
- **Gure osasuna, elikadura, forma fisikoa eta errendimendua monitorizatzen lagundu behar al digu, pribatutasuna galdu arren?**
- **Parte har al dezake desberdintasunak konpontzen, ezagutzaren, trukearen, esperimentazioaren eta konexio unibertsalaren kultura bultzatuz?**
- **Benetan jasangarriagoa den mundu baten diseinuan parte hartu behar al du?**

10

Marka



Marka



Informatu

“Zure marka, gelan ez zaudenean jendeak zutaz esaten duena da”.

Jeff Bezos, Amazon multinazionalako CEOa eta presidentea.

“Marka baten balio bakarra jendearentzat esan nahi duena da”.

Joan Costa, espainiar komunikologo, diseinatzaile eta ikertzailea.



Inspiratu

Zure ustez, zer esan nahi du jendearentzat ordezkatzan duzun edo lan egiten duzun markak?

Zer esan nahi dute marka horiek zuretzat?

Lotu hiru ideia/kontzeptu/sentimendu marka horietako bakoitzarekin: Apple, Coca Cola eta Nike.

- **Espirituala**
- **Elegantea**
- **Kontserbatzailea**
- **Adimenduna**
- **Familiakoa**
- **Emotiboa**
- **Arrazionala**
- **Misteriotsua**
- **Atsegina**
- **Berritzailea**
- **Maskulinoa**
- **Irakokigarria**
- **Erakargarria**
- **Jasangarria**
- **Aurreratua**
- **Gaztea**
- **Sortzailea**
- **Kosmopolita**
- **Femeninoa**
- **Arina**
- **Gaur egungoa**

11

Habitata



Habitata



Informatu

Ikuspegi etikotik, hiri ireki batek ezberdintasunak bere gain hartu beharko lituzke, berdintasuna sustatu, eta, bere biztanleak aurretik ezarritakoaren kortsetik askatu, esperimentatu eta esperientzia zabaldu ahal izateko.

Hiri bateko esperientzia kontraesanez, eraikitakoaren –arauemai- learen eta eraikiaren– eta bizitakoaren arteko ertzez eta alderdi zakarrez, beteta dago. Hirigintza proaktiboa etikaren apaltasunarekin uztartu behar da; herritarrekin elkarlanean aritu behar da, kritikoa izan behar da jendeak bizi duen moduarekin eta, aldi berean, autokritikoa eraikitzen duenarekin.

Honetan oinarritua: *Construir y habitar. Ética para la ciudad de Richard Sennett*, 2019. Batzelona: Anagrama.



Inspiratu

“Eskola zuhaitz baten azpian zegoen gizon batekin hasi zen, maisua zela ez zekien, eta ikasle zirela ez zekiten beste batzuekin ulertu zuenaz eztabaidatzen hasi zen gizon batekin (...) Ikasle haiek, euren seme-alabek ere gizon hori entzutea nahi zuten, eta, horrela, espazioak eraiki ziren, eta lehen eskola sortu zen”.

Louis Kahn, Estonian jaiotako arkitekto amerikarra (1901-1974).

Esatera aleman batek dio: "Hiriko aireak askatu egiten du". Zein da gure hiriak eraiki etagobernatzeko orduan gidatu behar gaituen espiritua?

Erantzun baietz edo ezetz galdera hauei:

- **Gure hiriek inklusiboagoak izan behar al dute eta izan nahi duguna bihurtzeko aukera eman behar al digute?**

"Hiri bat gizaki mota ezberdinek osatzen dute; antzeko jendeak ezin dio hiriarik existentziarik eman". - Aristóteles, *Politika*.

- **Herritarrek eragin handiagoa izan behar al dute hiriaren eraikuntzan eta gobernantzan?**

Jane Jacobsek baieztatzen zuenez hiri-formak astiro eta pilaketa bidez sortzen dira, erabileraren eta esperientziaren irakaspenen ondorioz. *Muerte y vida de las grandes ciudades*, 2011.

- **Hiri-plangintzak gizartea den bezalakoa ordezkatu behar al du, gizartea aldatzen saiatu ordez?**

Komunitate baten bizitzaren barne-barneko egitura suntsitzearen prezioa ordainduz egitura fisiko bat sortzea erokeria hutsa da. Lewis Mumford, *Technics and Civilization*, 1934.

- **Teknologiak bizitza errazagoa egin al diezaguke, pertsonen arteko harremanak ordenatuz eta leunduz?**

Richard Sennettek, jendeak espazioak nola erabili behar dituen agintzen duen teknologia, tontotzen gaituena; eta jarduera desordenatuenak koordinatzen baina ezabatzen ez dituen, mentalki estimulatzen gaituena, bereizten ditu. *Construir y habitar*, 2019.

12

Produktua



Produktua



Informatu

Steve Jobsek, 2001eko urriaren 23ko ezusteko ekitaldian, Appleren MP3 erreproduzigailua zen iPod-a aurkeztu zuenean, erreakzioak epelak izan ziren: "Applek beste saiakera bat egin du merkaturako tramankulurik coolena izateko... Karkasa huts bat berritasun apurtzaile gisa aurkeztua... Eta, gainera, oso prezio altuan!".

Hala ere, 2004. urtearen amaieran, bere segmentuko salmenten %80 inguru zeukan.

Hemen oinarritua: *iPod BACKSTAGE*, Gilles Dounès & Marc Goeffroy, 2005. Paris: Dunod.



Inspiratu

"Produktua ondasun material baten eta zerbitzu baten arteko bateratzea da; kontsumitzaileekin hitz egiten duen osotasun interaktibo gisa: produktua-zerbitzua".

Ezio Manzini, diseinatzaile italiarra eta Milango Politeknikoko ohorezko irakaslea.

"Diseinatzaile gisa pentsatzeak produktuak, zerbitzuak, prozesuak eta estrategiak garatzeko dugun modua eraldatzen du".

***Design Thinking*, Tim Brown. Harvard Business Review, 2008.**

Eta zure produktuak/zerbitzuak esperientzia berriak sortzen dituen sistema baten ikuspegitik birplanteatuko bazenitu, nolakoak izango lirateke?

Nola lortu zuen Applek? iPod-aren arrakastan parte hartu zuten faktoreetatik, zein ausartuko zinateke esatera izan zela funtsezko faktorea?

Aukera bakarra hautatu:

- **Apple markaren erakargarritasuna eta sinesgarritasuna**
- **Marketin- eta komunikazio-estrategia indartsua**
- **Estetika erakargarria, berritzailea eta erabilera intuitiboa**

- **Esperientzia berritzailea, musika guztia poltsikoan**

Harreman berri bat musikarekin, iPod-ak iTunes funtzio anitzeko irakurgailuarekin eta Music Store deskarga plataformarekin zuen konexioari esker.

- **Berrikuntza teknologikoko elementuen integrazioa**

Firewire hartune bat integratzea eta 1.000 abesti gordetzeko eta minutu gutxi batzuetan lekualdatzeko aukera ematen zuen 1,8"-ko disko gogor bat erabiltzea.

- **iPod/iTunes/Music Store sistemaren koherentzia**


Sistemaren elementuen arteko eta marka-irudiarekiko koherentzia, musikarekin beste mota bateko harremana planteatuz.

- **Online erosketak, zure musika klik pare batean bakarrik**

Abestiak eta musika albumak online erosteko eta artistei etekinak bermatzen zizkien denda batean erosteko aukera.

13

Antolakun- tzarako kultura



Antolakun- tzarako kultura



Informatu

“Kultura korporatiboa, erakunde bat izateko eta egiteko moduari lotuta dagoen eta erakunde horretako kideek partekatzen duten faktore-multzo bat da. (...) Erakunde bat besteetatik bereizten dituzte, eta ingurunean kokatzeko eta barrutik kohesionatzeko balio dute”.

Montse Bordas, Branwardeko Corporate Culture Strategist.

Pertsonen zuzendutako antolakuntzarako kultura batek gizarte-balioak sustatzen ditu, inklusiboa eta malgua da; norbanakoaren ekimena eta sormena bultzatzen ditu, arriskua eta ziurgabetasuna onartzen ditu; elkarri modu kohesionatuan eragiteko a ematen du, eta koherentea da bere estrategian, egituran eta sistemetan.



Inspiratu

“(…) Berritu, gure erakundeak arinagoak, kolaboratzaileagoak, gizatiarragoak, garrantzitsuagoak, digitalagoak eta jasangarriagoak izan daitezzen, eta, batez ere, zalantzazko inguruneetan zuzen nabigatu dezaten”.

Berrikuntza, teknologiatik haratago Jon Fernández, Orbeako zuzendari nagusia. Innobasque.


**Zergatik ez sortu zure
enpresa, bezeroak eta
langileak "maiteminduko"
dituen kultura bat?
Zein zutaberen gainean
eraikiko zenuke?**

Aukeratu kontzeptu hauetako 5:

- **Lidergoa**
- **Lankidetz**
- **Osotasuna**
- **Pasioa**
- **Aniztasuna**
- **Kalitatea**
- **Konpromisoa**
- **Jasangarritasuna**
- **Gaikuntza**
- **Gizarte-Erantzukizuna**
- **Sormena**
- **Benetakotasuna**
- **Bikaintasuna**
- **Berrikuntza**
- **Parte-Hartzea**
- **Berdintasuna**
- **Malgutasuna**
- **Enpatia**
- **Eraginkortasuna**
- **Agintaritz**
- **Koherentzia**
- **Proaktibitatea**
- **Garrantzia**
- **Lehiakortasuna**
- **Optimizazioa**
- **Azkartasuna**
- **Balioa**
- **Askatasuna**

13

Estrategia



Estrategia



Informatu

“Erakundeen % 90 inguru ez da diseinuaren potentzial guztia aprobetxatzen ari”.

Hala egiten dutenen ezaugarria, diseinua “guztiarekin lotzen den geruza funtzional gisa ikustea” da, “produktua gauzatzeko denetik estrategia korporatibora arte”.¹

“McKinsey eta InVision² ondorioztatu zutenez, diseinu saila negozioaren gaineraketik bereiztea akatsa da, diseinu korporatiboaren estrategiak produktu erakargarrietatik harago joan behar du eta negozioaren alderdi guztietan eragin behar du”.³

¹Honetan oinarritua: *Are you asking enough from your design leaders?* Melissa Dalrymple, Sam Pickover & Benedict Sheppard, McKinsey Quarterly, 2020.

²*The Business Value of Design*, McKinsey & Company, 2018 / *The New Design Frontier*, InVision, 2018.

³*Integrating design into business strategy is good for growth*, says InVision report, Augusta Pownall, Dezeen, 2019.



Inspiratu

“Ez da diseinua versus negozioa, elkarrekin zer egin dezakegun baizik”.

Katie M. Dill, diseinu presidenteordea Lyft.

Aprobetxatzen al du zure erakundeak diseinuaren balioa?
Zer pauso eman beharko lituzke hori egiteko?


Nola antolatu diseinua erakundeei balio esanguratsua eman diezaien?

Baloratu 1etik 5era, 5.a lehentasun gehienekoa izanik:

- **Diseinua erakunde osoan integratutako funtzio gisa hedatzea, ez funtzio zentralizatu edo sail estanku gisa**
- **Zuzendaritza-mailan diseinuarekin konpromiso ukigarria izatea, berrikuntzarako baliabide eta indar integratzaile eta eraldatzaile gisa**
- **Inbertsio esanguratsua eta iraunkorra diseinuan**
- **Diseinu arloko lidergoa txertatzea erakundeko zuzendaritza-kupulan**
- **Diseinurako eredu operatibo eta informazio-egitura argiak**
- **Diseinu fisikoaren, digitalaren eta zerbitzukoaren arteko oztopoak kentzea**

15

Zerbitzuak



Zerbitzuak



Informatu

"Erabiltzailearen bihotzerako bidea fidelitasun programa bat baino askoz gehiago da. Erabiltzailea ebanjelari bihurtzeak, horiei buruz hitz egitea merezi duten esperientziak sortuko ditu!".

Valeria Maltoni, idazlea, hizlaria eta enpresa aholkularia.

"Kontsumitzaileen % 89k erakunde batekin negozioa egiteari uzten dio Bezeroaren Zerbitzuan esperientzia txarra badute".

Rightnow customer experience impact report, 2019.



Inspiratu

Airbnb-ek zerbitzuen diseinua erabiltzen du erabiltzaileen esperientzien mapa benetan ulertzeko. Besteak beste, Airbnb-eko anfitrioiaren 45 une emozional desberdinen storyboard bat egiten hasi ziren. Era berean, erabiltzaileen bidaiak zehatz-mehatz aztertu zituzten, haien sentimenduak eta puntu kritikoak ulertzeko, benetan positiboak diren esperientziak errazten dituzten zerbitzuak diseinatu ahal izateko.

Zer egiten duzu zuk?

Wow, izugarri gustatu zaizun zerbitzu batekin esperientzia bikaina izan duzu. Tweet bat idatzi behar duzu. Zein hashtag-ek lagunduko liokete?

Pentsatu zerbitzu horrek izango lituzkeen funtsezko ezaugarrietan eta aukeratu 3tik 5era:

- Kanal anitzekoa
- Bideratzailea
- Pertsonalizatzeko modukoa
- Iraunkorra
- Koherentea
- Harrigarria
- Gizatiarra
- Didaktikoa
- Intuitiboa
- Free-a
- Teknologikoa
- Partekagarria
- Motibatzailea
- Arduratsua

EIDE DESIGN VISIONS

Elkarteari buruz gehiago jakin nahi baduzu:
www.eidedesign.eus

Gurekin kontaktatzeko, idatzi:
info@eidedesign.eus